

ARABA, BIZKAIA
ETA GIPIUZKOAKO
HERRITARRAK
AHALDUNTZEKO
LEGE PROPOSAMENA

 **ehbildu**

EUSKAL BIDEA





ehbildu



Euskal Herria Bildu



AURKIBIDEA

ATARIKOA.....	5
I. TITULUA – OINARRIZKO PRINTZIOAK	8
II. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK	9
III. TITULUA. HERRI KONTSULTAK.....	10
• I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.....	10
• II. Kapitulua. Herri-kontsulten prozedura	13
• III. Kapitulua. Herri-kontsulten arau bereziak, herritarren ekimenez sustatuak direnean.....	21
IV. TITULUA. HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUAK.....	26
• I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.....	26
• II. Kapitulua. Herritarren parte-hartze prozesuen ekimena eta edukia.....	27
• III. Kapitulua. Parte-hartze motak	31
XEDAPEN GEHIGARRIAK	34
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	35
AZKEN XEDAPENAK.....	36



ETA ABAR ZIRRIBO

ATARIKOA

I

Euskal Herriaren zati osagarri direnez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal lurraldeak osatzen dituzten herritarrek, antolaketa eta harreman politikoetarako beraien esparru propioa askatasunez eta demokraziaz erabakitzeko duten eskubidea erabiliz, euskal nazioaren adierazgarri beren burua komunitate politiko gisa eratuta, beren etorkizun politiko, ekonomiko eta sozialaren jabe izan nahi dute. Hori guztia gainontzeko euskal lurraldeekiko bateratze bide iraunkorren eta betiere euskal lurralde bakoitzeko biztanleriaren borondate librean oinarrituta.

Herritarren ahalduntzea lortzeko bidean, Euskal Autonomi Erkidegoan erakunde eta herritarren arteko ibilbide partekatua bidez demokrazian eta gure eskuduntzetan sakontzerekin batera, Herri gisa askatasuna, justizia soziala eta gainerako herriekiko elkartasuna ditugu xede.

Lege hau, euskal herritarrek askatasunez eta demokratikoki aritzeko bitartekoa besterik ez da. Alegia, euskal gizarteari garrantzi bereziko auzi politiko, sozial, ekonomiko eta bestelakoetan erabaki ahalmena aitortzeko bitartekoa. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren bizitza politikoaren alde guztiak ebazteko eta bere mugak ezartzeko tresna bakarra izan behar du herritarren borondate librearen adierazpenak.

Modu berean, azken urteotan, munduko gainontzeko estaturik gabeko Nazioetan gertatu den bezala, galdeketa, printzipio demokratikoaren adierazpide gisa, bitartekorik egokiena da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek etorkizun instituzionalari buruz bere nahia askatasunez eta demokratikoki adieraz dezaten.

Bizitza politikoan eta erabaki-hartze prozesuan herritarren parte-hartze handiagoa, horra demokrazia sendoetako giro politikoetan azkenaldi honetan behin eta berriro aipatua den gaia. Ordezkaritzan oinarrituriko demokrazia kontzeptua, azken bi mende honetan garatu dena, osatu du parte-hartzean oinarrituriko kontzeptuak. Demokrazia parte-hartzailearen helburuetako bat da herritarrak sistema demokratikoaren barruan jokatu beharreko papera aldi behin boto ematera ez mugatzea, horixe gertatzen baita demokrazia ordezkatzailean, eta herritarraren jokamolde protagonista, aktiboa eta propositiboa bultzatzen du politikaren arlo eta maila guztietan. Herritar eragileez, antolatuez eta eszena politikoan modu dinamikoan parte hartzeko prestatuez egituraturiko gizartea du helburu demokrazia parte-hartzaileak.

Gure inguruetako demokrazia aurreratuenak legeko tresnak garatzen ari dira herritarren parte-hartzea eta demokrazia parte-hartzailea jardueraren esparru guztietara hedatzeko. Adibidez: Lisboako Itunaren bitartez, 10. eta 11. artikuluen bidez hain zuzen ere, sarrarazi zuen Europar Batasunak demokrazia parte-hartzailearen kontzeptua Komunitatearen ondarean.

Lege honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrak ahalduentzea du xede, demokrazian sakontzeko eta gizartearentzat garrantzi handikoak diren gaietan herritarrek parte hartzeko asmoz. Horretarako, Europako Kontseiluko kide diren estatuetao demokraziarik aurreratuenen jarduera erreferentzia gisa hartuko da, galdeketak era normalizatuan egiten dituztenena, hain zuzen.

II

Arestian aipaturikoaren ildotik betiere, herri-kontsulten eta parte-hartzerako beste tresna batzuen erregimen juridikoa eta haien deialdietarako prozedura zehazten eta xedatzen ditu lege honek, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko bizitza publikoko eta Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta tokiko erakundeen eskumen-esparruetako edozein gairen aurrean dituzten jarrerak eta iritziak ezagutzeko tresnak diren aldetik.

Halarik ere, argi eta garbi adierazi beharra dago, aldi berean, herritarren parte-hartzearen aldeko politika publikoa ezin dela legearen bultzada soilaz benetan bermatu, lege hori instituzio eta erakundeen funtzionamenduan eta administrazioen informaziorako sarbidean zaindu beharreko gardentasunaren, aniztasunaren begirunean oinarrituriko eztabaida publikoetarako baldintza egokien, asoziazionismoaren sustapenaren eta herritarren ahalduentze politikoaren aldeko beste neurri askorekin batera ez badator.

III

Gurean, historikoki, herritarrak ondare publikoaren arduradun egiten du Auzolanak, eta, horrek, komunitatea trinkotzeko tresna bihurtzen du. Lege honen helburuetakoa da mundu-ikuskerara hori jarduera politiko garaikidera ekartzea.

IV

Azaldu ditugun premisetatik abiaturik, lau titulu nagusitara bilduriko berrogeita hemeretzi artikuluen arabera egituratu da lege hau.

I.Tituluan Euskal erakundeetatik garrantzi bereziko kontu politikoak galdeketen bidez ahalbidetzeko Printzipio Orokorrak bildu dira.

Izaera orokorreko xedapenak bildu dira II. Titulura, honako aspektu hauek zehazturik: legearen helburua eta aplikazio-esparrua, eta parte-hartze molde guztien inplementazioa bermatuko duten oinarri orokorrak.

Herri-kontsultak eta kontsulta-prozesuen jarraipenaz eta kontrolaz arduratuko diren tresnak arautu ditu III. Tituluak.

Herri-kontsultak arautu ditu I. kapituluko II. tituluak, eta haietarako deialdia bururatzeko eskumena aitortzen die hartan Lehendakariari, Aldun Nagusiei

eta alkateei. Lehendakariari berari, Gobernuari, Legebiltzarrari, Aldun Nagusiei, Batzar Nagusiei eta udalei dagokie instituzioen esparruetatik bultzatzeko ekimena EA Eren barruan; Aldun Nagusiei, Batzar Nagusiei eta udalei lurralde historiko bakoitzaren barruan, eta udal erakundeko lehendakariari edo udal osoko batzari tokiko esparruan, eta une oroz errespetatuko da haietan herritarren ekimena, III. kapituluaren zehaztu bezala garatuko dena. Zehaztu ere egin da zein pertsona deitu ahal izango diren prozesu horietan parte hartzeko, eta horretarako sortuko dira Parte-hartze Erregistroa eta Herri-konsulten Erregistroa. Konsulten ondorioak ere zehaztu dira: inoiz ere ez dira izaera loteslekoak izango eta haien organo deitzaileak herritarren aurrean kontuak emateko duen obligazioaren pean garatuko dira.

Konsultaren helburua, deialdirako dekretuaren gutxieneko edukia eta konsulta-prozesua gidatuko duen berme-sistema zehaztu ditu II. kapituluak. Hartan arautu dira, halaber, helburuei begira aintzat harturiko berme-mekanismoen funtzioak: kontrol batzordea, jarraipenerako batzordeak eta konsulta-mahaia. Arautu ere egin dira bozketa moldeak eta, zenbaketarako irizpideei dagokienez, deialdi bakoitzerako dekretuaren arau berezietara jo beharra gogorarazten du era berean.

Horrez gainera, herri-konsulten esparruan bideratuko diren bitarteko elektronikoen erabilera ere arautu du II. kapituluak, erabilera hori bozketa-prozesuan bezala sinaduren bilketan ere sustatzearen. Herritarren parte-hartzea sustatzea da helburua, beharreko berme juridiko guztiak errespetatuz.

Herritarren ekimena arautu du III. kapituluak, ekimena nori bultzatzea dezakeen, batzorde bultzatzailearen osaketa, sinatzaileen legeztatze aktiboa, konsulten esparrua, eska daitekeen sinadura kopurua eta konsulta berriak ezin sustatuko diren denbora-epeak zehaztuz.

Herritarren parte-hartze prozesuei buruzkoa da IV. titulua eta hiru kapituluak egituratu da. Xedapen nagusiak eta aplikazio-esparru subjektiboa eta objektiboa jaso ditu I. kapituluak. Instituzioen ekimenaren eta herritarren ekimenaren ezaugarriak, prozesuen egitura, proposamenen ekarpena, proposamenen balioestea eta herritarren parte-hartze prozesuaren ebaluazioa eta ondorioak zehaztu dira II. kapituluaren.

III. kapituluak ematen dio amaiera IV. tituluari. Parte-hartze molde desberdinak zehazten dira hartan, hala nola galdeketak, audientzia publikoak, auzolana, aurrekontu parte-hartzaileak eta parte-hartze foroak.

Hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta bi azken xedapen ageri dira bukaera aldean. Azken xedapenetan zehaztu da lege honen indarraldiaren hasiera, eta haietan eskumena ematen zaio orobat Jaurleari, legerari dagokion araudia gara dezan.

I. TITULUA – OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoa gizarte antolatu baten espresio izanik, bere herritarren eskubideak egikaritzeko ahalmenaren aitortzan, garrantzi bereziko kontu politikoak ebazteko bide demokratikoak garatzea da lege honen helburua, Euskal Autonomi- Erkidego mailako galdeketak Europako Kontseiluaren printzipio demokratiko eta nazioarteko estandarren baitan sustatzeko asmoz.

Demokratizazio bide horretan Europar kontseiluko kide diren Estatuetakoa demokrazia aurreratuenen praktika normalizatuak jorratzea eta xedatzea.

Herritarren ahalduntzearen bidez, pertsona eta herritar bezala dagozkigun eskubideak eskuratzeko, euskal erakundeen eta herritarren arteko bide partekatuari hasiera ematea.

Europako kontseiluak demokrazian sakontzeko eginiko proposamen eta ebazpenei jarraitzea.

II. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Helburua eta aplikazio-esparrua.

1. Lege honen helburua da herri-kontsulten eta herritarren beste parte-hartze molde eta bitarteko instituzionalen erregimen juridikoa, modalitateak, prozedura, bururatzeko prozesua eta deialdia Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta tokiko erakundeen eskumen-esparruen barruan xedatzea eta arautzea.

2. Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta tokiko erakundeei dagozkien herri-kontsultak arautzen dituzten lege honek. Azken bi kasu horietan, erakunde horien antolamendu eta funtzionamendurako arauak jarraiki ere garatu ahal izango dira lege hau.

3. Foru Aldundiek eta tokiko erakundeek beren antolamendu eta funtzionamendurako arauak jarraiki arautu ahal izango dituzte, beren eskumen-esparruan, gainerako parte-hartze tresnak eta, beraz, ordezkotza baizik ez du izango lege honek kasu horietan, 41.1 eta 42., 46., 51. eta 52. artikuluetan xedaturikoaren kasuan izan ezik, zuzeneko aplikaziokoak baitira aipaturiko artikuluko artikuluen horiek. Honek guztiak ez die parte-hartzerako sor litezkeen beste bitarteko edo mekanismoei bidea eragotziko.

2. Artikulua. Printzipio orokorrak

1. Gardentasun, publikitate, argitasun, informaziorako sarbide, neutraltasun instituzional, interes kolektiboaren lehentasun, aniztasun, berdintasun eta ez-diskriminazio, inklusio, izaera pertsonaleko datuen babes eta kontuen ematearen aldeko printzipioetan oinarritutako dira herri-kontsultak eta gainerako parte-hartze moldeak.

2. Lege honetan xedaturikoari jarraiki, 1. atalean aintzat harturiko printzipioak obligazioak dira Administrazioarentzat eta eskubideak eta bermeak parte-hartze prozesuan parte hartzeko gaiturik izango diren subjektuentzat.

3. Parte-hartze prozesu guztian berritasunak dira informazio, eztabaida, proposamenen balioeste, ebaluazio eta kontuak emateko faseak. Herri-kontsulten kasuan, II. tituluaren arautuak dira bereziki haietan aintzat hartu beharreko faseak.

III. TITULUA. HERRI KONTSULTAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

3. Artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Herri-kontsulta da agintari eskudunek, lege honek xedatzen duenari jarraiki, kasu bakoitzean legearen arabera gaituriko pertsoneri jarduera, erabaki edo politika publiko bati buruz botoen bidez iritzia emateko egiten dieten deialdia.

2. Herri-kontsultak autonomia-esparrukoak izan daitezke, EAEko lurralde osoari dagozkionean; foru-esparrukoak, aintzat hartzen dutena lurralde historiko bat baizik ez denean, eta toki-esparrukoak, udal edo udalen arteko izaerakoak direnean.

3. Herri-kontsultak izaera orokorrekoak edo arlo izaerakoak izan daitezke. Kontsulta orokorrak dira parte hartzeko 5. artikuluan zehazturiko terminoen arabera gaitu diren pertsoneri zuzendurikoak. Arloko kontsultak dira, duten helburu zehatza dela-eta, pertsona kolektibo jakin bati edo batzuei zuzendurikoak, eta 5.2 artikuluan xedaturiko irizpideak hartuko dira haietan kontuan.

4. Arloko kontsultak fakultatiboak izan daitezke, hau da, herritarrek herri-kontsultak sustatzeko eskubidea izango dute, baldin eta haien helburua bada herritarren iritzia botoen bidez jasotzea Eusko Jaurlaritzak, Foru Diputazioak edo udalek hurrenez hurren onartu berri dituzten legeei, arauari eta ordenantzei buruz.

4. Artikulua. Sustatzaileak.

1. Instituzioen ekimenez edo herritarren ekimenez susta daitezke herri-kontsultak.

2. Hona hemen nor izan daitezkeen autonomia-esparruko ekimen instituzionalaren sustatzaileak:

a) Lehendakaria edo Jaurlaritzak.

b) Legebiltzarra, Osoko Bilkurak gehiengo soilaz harturiko erabakiaren bidez, legebiltzarkideen bi bostenek edo Legebiltzarreko hiru taldek eginiko proposamenari jarraiki.

c) Foru Aldundietako bi, Foru Gobernu bakoitzaren edo dagozkien batzar nagusiek gehiengo soilaz hartutako erabakiaz.

d) Udalen % 10, haien osoko bilkurek gehiengo osoaz harturiko erabakiaz. Hala jokatu ahal izateko, udal horien arteko guztizko biztanleria 270.000 biztanlekoa izango da gutxienez.

3. Hona hemen nor izan daitezkeen foru-esparruko ekimen instituzionalaren sustatzaileak:

a) Aldun Nagusia edo Foru Gobernuia.

b) Batzar Nagusiak, Osoko Bilkurak gehiengo soilaz harturiko erabakiaren bidez, batzarkideen bi bostenek edo Batzar Nagusietako hiru taldek eginiko proposamenari jarraiki.

d) Udalen %10, haien osoko bilkurek gehiengo osoaz harturiko erabakiaz. Hala jokatu ahal izateko, udal horien arteko guztizko biztanleria lurralde historikokoaren % 10 izango da gutxienez.

4. Hona hemen nor izan daitezkeen toki-esparruko ekimen instituzionalaren sustatzaileak:

a) Udal osoko bilkurak gehiengo soilaz harturiko erabakiaren bidez, zinegotzien bi bostenek edo bi udal taldek eginiko proposamenari jarraiki.

b) Alkatea, bere ekimenez edo udal batzako kideen bi bostenen edo bi udal talderen proposamenari jarraiki.

d) Udalen bi bosten, osoko bilkuretan gehiengo soilaz harturiko erabakiaren bidez, zinegotzien bi bostenek edo bi udal taldek eginiko proposamenari jarraiki. Kontsultaren sustatzaileek egin beharko dute proposamena. Kasu honetan, Foru Aldundiko lehendakariari dagokio kontsultarako deialdia egitea. Udalak lurralde historiko bat baino gehiagokoak badira, Lehendakariari dagokio kontsultarako deialdia egitea.

4. III. kapituluaren xedaturikoaren bitartez arautuko da herritarren ekimena.

5. Artikulua. Pertsona gaituak

1. Honako pertsona hauek deitu ahal izango dira herri-kontsultetan botoen bidez parte hartzeko:

a) Hamasei urtetik gorako pertsonak, EAEn erroldatuak badira eta kontsulta aurreko urtebetean bertan bizi izan direla egiaztatzen badute, atzerrian bizi direnak ere haien artekotzat hartuz. Azken horiek izena eman beharko dute alde aurretik horretarako sortuko den erregistroan.

2. 1. atalean aipaturiko esparruan, parte hartu ahal izango duten pertsonen ezaugarriak zehaztuko ditu deialdirako dekretuak, guztiz errespetaturik betiere berdintasun eta ez-diskriminaziorako printzipioari darizkion betekizunak. Mugaketa hori lurralde-esparruaren eta galderaren helburuari zuzenean dagozkion interesen arabera egingo da eta, azken kasu horretan, deialdiak helburu dituen kolektiboak modu argian eta objektiboan identifikatzeko aukera emango duten irizpideak hartuko dira aintzat.

6. Artikulua. Parte-hartzaileen Erregistroa herri-kontsultetan

1. Herri-kontsultetako Parte-hartzaileen Erregistroa sortuko da, herri-kontsultetan eta herritarren parte-hartzearen arloko departamendu eskudunari

loturik. Legearen arabera kontsultan parte hartzera deitu ahal izango diren pertsona guztiak hartuko dira Erregistro horretan aintzat.

2. EAEko biztanleen Erregistroko eta kanpoan bizi diren EAEko herritarren Erregistroko datuek osatuko dute herri-kontsultetako parte-hartzaileen Erregistroa eta, deialdi-eguna baino lehen egin zen azken eguneratzeko datuez gainera, kontuan hartuko dira hartan pertsona bat gaituztat hartzeko aukera emango duten beste erregistro-datu batzuk, deialdien arau espezifikoetan zehaztuko direnak.

3. Organo arduradunaren egitekoak izango dira 2. atalean aipatu diren erregistro-datuen jakinaraztea eta eguneratzea, eta ez dute, datuen babeserako araudiari jarraiki, interesatuen alde aurreko onarpena behar.

4. Kontsultarako deia egin ondoren, epe bat zehaztuko du herri-kontsultetako parte-hartzaileen Erregistroaren organo arduradunak atzerrian bizi diren EAEko herritarrek kontsultan parte hartzeko borondatea agertu ahal izan dezaten.

5. Deialdia egingo duen organoaren eskariari jarraiki, parte hartzera deituriko pertsonen zerrenda prestatuko du herri-kontsultetako Parte-hartzaileen Erregistroaren organo arduradunak, deialdirako dekretuak zehaztuko duenaren arabera.

6. Herri-kontsultetako Parte-hartzaileen Erregistroan zehaztuko dira lege honek xedaturikoaren arabera parte hartzeko gai diren pertsonen parte-hartzea bermatzeko behar diren datu guztiak. Herri-kontsultetan parte hartzera deituak diren pertsonen ideologia, sineste, erlijio, etnia, osasun eta sexu-orientabideari buruzko datu bakar bat ere ezin zehaztuko da erregistro honetan.

7. Artikulua. Herri-kontsulten Erregistroa

Herri-kontsulten Erregistroa sortuko da, arlo horretako departamentu eskudunari loturik. Haren helburua da herri-kontsulten inskripzioa gauzatzea, lege honen babespean sustatu eta bururatu direnean. Erregistroa administrazio izaerakoa da eta araudi batez arautzen da.

8. Artikulua. Kontsulta kopuru gorena

Urte natural bakoitzean hiru deialdi egin ahal izango dira gehienez autonomia-esparruan, hiru foru-esparruan eta hiru toki-esparruan (hiru, udalerrri bakoitzeko), dagokien lurralde-esparruan hain zuzen ere. Kopuru goren hori handiagotu ahal izango dute tokiko erakundeek.

II. KAPITULUA. HERRI-KONTSULTEN PROZEDURA

9. Artikulua. Deialdia.

1. Herri-kontsultarako deialdia egingo du Lehendakariak, bere nahiari erantzunez edo lege honetan zehazturiko baldintzak betetzen direnean.
2. Herri-kontsultarako deialdia egingo du Foru Aldundiko Lehendakariak, bere nahiari erantzunez edo lege honetan zehazturiko baldintzak betetzen direnean.
3. Herri-kontsultarako deialdia egingo dute tokiko erakundeek beren lehendakarien bitartez, lege honetan zehazturiko baldintzak betetzen direnean eta toki-esparruko araudi espezifikoa xedaturikoari jarraiki.
4. Dekretu bidez egingo da, kasu guztietan, herri-kontsultetarako deialdia.
5. Instituzioen ekimena onartu edo, kontsulta herritarren ekimenaz sustatu bada, organo eskudunek sinadurak balioetsi ondoko laurogeita hamar eguneko epearen barruan egingo da Herri-kontsultarako deialdia. Deialdirako dekretua argitaratu den biharamunaren ondoko hogeita hamar eta hirurogei egun naturalen bitarteko epean bururatuko da kontsulta.

10. Artikulua. Kontsultaren helburua

1. Kontsultak galdera edo proposamen bat, edo gehiago, eduki dezake bere formulazioan, pertsona gaituek baiezko botoa, ezezko botoa edo boto zuria eman ahal izan dezaten.
2. Aukerarako hainbat proposamen egin daitezke formulazioan. Kasu horretan, elkarren ezabatzaile izango dira proposamenak, bakar bat bozka dadin.
3. Hainbat proposameneri buruzko kontsultak formulatu ahal izango dira, baldin eta kontsultaren helburu berari badagozkie.
4. Modu neutroan, argi eta garbi egingo dira kontsultarako galdera, galderak edo proposamenak.
5. Ezin formulatuko dira Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen gutunean aipaturiko funtsezko eskubideak eta askatasunak muga edo murriz litzaketan kontsultak. Era berean, haietatik kanpo geratzen dira zerga-politikekin loturiko gaiak eta dagoeneko onaturiko aurrekontuak.

11. Artikulua. Deialdirako dekretua.

1. Honako hauek zehatuko dira deialdirako dekretuan:
 - a) Bozkatu beharreko galdera, galderak edo proposamenak, 11. artikulua aipaturiko aukerekin.
 - b) Kontsultan parte hartuko duten pertsonak.
 - c) Ohiko bozketa presentzialerako eguna edo egunak, eta alde zuzeneko bozketa-epea, hala behar badu.

d) Bozketa moldeak.

e) Kotsultaren berezko arauak, deialdirako dekretuaren eranskin gisa aurkeztuko direnak.

2. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da kotsultaren deialdirako dekretua.

3. Kotsultaren deialdirako dekretua sinatu ondoren, kotsultaren ezagutarazte instituzionalerako epea zabalduko dute instituzio deitzaileek, kotsultaren helburu eta prozedurari buruzko informaziorako eskubidea bermatzeko, parte-hartze eta botoen orientabidean inolaz ere eragin gabe, eta gardentasuna, aukera-berdintasuna eta aniztasun politikoaren errespetua bermatuz.

4. Kotsultaren deialdirako dekretuarekin batean, inolaz ere aurkeztu beharko da kotsultak instituzio deitzaileari sorraraziko dizkion gastuen memoria ekonomikoa.

12. Artikulua. Berme-sistema

1. Berme-sistemaren helburua da kotsulta-prozesuaren fidagarritasuna, gardentasuna, neutritasuna eta objektibotasuna, eta aplikatu beharreko erregimen juridikoaren betetzea, bermatzea.

2. Kontrol Batzordeak, jarraipenerako batzordeek eta kotsulta-mahaiek osatzen dute berme sistema.

3. Kotsulta EAEko esparrukoa bada, jarraipenerako batzorde bat eratuko da lurralde-esparru bakoitzeko, 16.3 artikuluan xedatu bezala.

4. Deialdiak hamabost egunetik beherako epea zabalduko du interesaturiko erakunde sozialek edo profesionalek kotsulta-prozesuan parte izateko duten borondatea agertu ahal izan dezaten. Interesaturizat hartuko dira kotsultaren helburuarekin loturiko xedea duten erakunde nortasun juridikodunak. Interesaturiko erakundearen izaera ezagutu beharko du Kontrol Batzordeak, behar bezala arrazoituriko ebazpenaren bitartez. Nolanahi ere, interesaturiko erakundeak dira Eusko Legebiltzarrean, lurraldeetako batzar nagusietan –foru-esparruko kotsulten kasuetan–, edo tokiko erakundeetan –toki-esparruko kotsulten kasuan–, diharduten talde politikoak.

5. Lege honek egokituriko eskubideen jabe dira kotsulta-prozesuan parte izateko onarturiko erakundeak.

6. Organo deitzaileak berme-sistemaren esku utziko ditu bere funtzioen jarduerari begira beharko dituen bitarteko pertsonal eta material guztiak, guztiz beterik eta baliaturik betiere legeriak kontuak emateko zehaztu dituen araudiak eta bitartekoak.

13. Artikulua. Kontrol Batzordearen definizioa eta osaketa

1. Herri-kontsultak lege honen oinarri, arau eta betekizunen araberakoak direla, eta xedaturiko prozedura eta deialdiaren berezko arauak guztiz betez eta errespetatuz bururatzen direla, zaintzen duen organo nagusia da Kontrol Batzordea.

2. Autonomia eta independentzia osoaz dihardu betiere Kontrol Batzordeak bere egitekoetan.

3. Omen eta prestigio handiko bederatziristikak eta politologok osatzen dute Kontrol Batzordea. Haietako bost izendatzen ditu Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, legebiltzarkideen hiru bosteneko gehiengoaz harturiko erabakiaren bitartez. Lurraldeko historikoetako batzar nagusiek bana izendatuko dute, batzarkideen hiru bosteneko gehiengoaz harturiko erabakiaren bitartez. Bat izendatuko du Arartekoak. Eusko Legebiltzarraren legegintzaldiaren aurreneko hiru hilabeteetan egin behar dira izendapen hauek. Nolanahi ere, juristikak izango dira batzordeko kide gehienak.

4. Kontrol Batzorderako izendaturiko kideek gehiengoaz hautatuko dituzte lehendakaria eta idazkaria, batzordearen osaketarako lehen bilkuran. Kide guztiak izendatu ondoko hamabost egunen epearen barruan egingo du batzordeak bere osaketarako aurreneko bilkura.

5. Lehendakariaren dekretuaz gauzatu da Kontrol Batzordeko kideen izendapena. Eusko Legebiltzarraren legegintzaldi bakoitzaren hasieran berrituko dira Kontrol Batzordeko kideak.

14. Artikulua. Kontrol Batzordearen funtzioak

1. Hona hemen Kontrol Batzordearen funtzioak:

a) Jarraipenerako batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak ebaztea, hiru eguneko epean.

b) Kontsultetan aplikatu beharreko agindu lotesleak eta publikoak ematea.

c) Interpretaziorako irizpideak zehaztea, jarraipenerako batzordeen eta kontsulta-mahaien jardunari begira, eta organo deitzaileari eta jarraipenerako batzordeei suerta lekizkiekeen arazoan aurrean izaera ez-lotesleko aholkuak ematea.

d) Herritarren ekimenen kasuetan, 32.4 eta 38. artikuluetan zehazturiko arazoiak direla medio, deialdirako eskaera onartu ez izanaren aurrean jarritako errekurtsioak zazpi eguneko epean ebaztea.

e) Administrazioak organo deitzaileari parte hartzera deituak diren pertsonen zerrendaren eta bitarteko elektronikoen erabileraren arloetan eman beharreko laguntzak eta sostengu-jardunak gainbegiratzea.

f) Kontsulten emaitza jakinaraztea.

g) Jarraipenerako batzordearen funtzioak betetzea, atzerrian bizi diren EAEko herritarren kolektiboarekiko zereginetan.

h) 12.3 artikulua kontsultaren ezagutarazte instituzionalerako epearen

inguruan zehazturiko bermeak zaintzea.

i) Lege honek edo beste arau batek egokituriko gainerako guztiak.

2. Kontrol Batzordea administrazio izaerako organoa da eta haren ekintzek amaiera ematen diote administrazioaren bideari.

15. Artikulua. Jarraipenerako batzordeen definizioa eta osaketa

1. Herri-kontsultak, Lege honek eta deialdirako arau bereziek xedaturikoari jarraiki, dagokien lurralde-esparruan garatzen direla eta 17. artikuluan xedatu diren funtzioak betetzen dituztela zaintzen duten organoak dira jarraipenerako batzordeak.

2. Autonomia eta independentzia osoaz dihardute betiere jarraipenerako batzordeek beren egitekoetan. Alabaina, haren erabakiak berrikusi ahal izango ditu Kontrol Batzordeak, legeak zehazturiko terminoetan.

3. Herri-kontsultetako esparrua EAE denean, jarraipenerako batzorde bana eratuko da hiru lurralde historikoetan.

16. Artikulua. Jarraipenerako Batzordearen funtzioak

1. Hona hemen Jarraipenerako Batzorde bakoitzaren funtzioak:

a) Kontsulta faseen garapen egokia bermatzea, araudiaren, kontsulta bakoitzeko arau berezien eta Kontrol Batzordeak interpretaziorako finkaturiko irizpideen arabera.

b) Zenbaketa-lanak egitea, dagozkien emaitzen aktak erredaktatzea eta Kontrol Batzordeari haien berri ematea.

c) Dagokion lurralde-esparruan kontsulta-prozesu guztiaren inguruan egin eta izango diren kexu, kontsulta eta gorabeheren aurrean ebaztea, hiru eguneko epean.

d) Interesaturiko elkarte eta erakundeen proposamenak aintzat harturik, ordezkariak izendatzea, kontsulta-mahaien osaketa ekitaldietan, bozketan eta behin-behineko eta amaierako zenbaketetan presente egon daitezten.

e) Kontrol Batzordearen eta indarrean dagoen araudiaren aginduz bete beharreko beste guztiak.

2. Jarraipenerako Batzordearen erabakiak Kontrol Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira, erabakia hartu den biharamunetik ondoko bi laneguneko epean.

17. Artikulua. Hautaezin eta bateraezin izateko arrazoiak

31.2 artikuluan aipatu diren egoeretakoren batean dauden pertsonak ezin izendatuko dituzte Kontrol Batzordeko eta jarraipenerako batzordeetako kide.

18. Artikulua. Kontsulta-mahaien definizioa eta osaketa

1. Kontsulta-mahaiak dira bozketak –ohiko bozketa presentziala eta bozketa elektronikoa presentziala– gauzatzen eta bururatzen diren organoak.
2. Kontsultaren arau bereziei jarraiki, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango ditu ezagutzera kontsultaren organo deitzaileak kontsultarako bideratuko diren lokal eta mahaien kopurua, eta haren lurralde-esparrua.
3. Lehendakariak eta bi kudeatzailek osatuko dute kontsulta-mahai bakoitza. Organo deitzaileak hautatuko ditu kontsulta-mahai bakoitzeko kideak, parte-hartzaileen erregistroan inskribaturiko pertsona adin nagusien artean egingo den zozketaren bitartez.
4. Kontsulta-mahaiak atzerrian ere eratzten badira, bozketa egingo den atzerriko lekuan bizi diren EAEko herritar parte-hartzaileen erregistroaren barruko pertsonen artean hautatuko dira mahaiko hiru kideak, zozketa bidez.
5. Kontsulta-mahai bakoitzeko lehendakaria eta kudeatzaileak izendatuko diren zozketa berean, bi ordezkari hautatuko dira kudeatzaile bakoitzeko eta beste bi lehendakari bakoitzeko.
6. Kontsulta-mahaietako lehendakariak eta kudeatzaileak izendatuko diren zozketak kontsultarako deialdia egin ondoko hogeit hamar eguneko epearen barruan egin behar dira, eta interesaturiko pertsonen eta jarraipenerako batzorde eskudunei jakinaraziko zaizkie ondoren izendapenak.
7. Kontsulta-mahaietako kide izateko zozketaz hautatu diren pertsonen, titularrek nahiz ordezkariak, uko egin ahal izango diote mahai horietako kide izateari, kontsultaren arau berezietan zehaztuko den epearen barruan. Jarraipenerako batzordeari zuzenduriko idatziaren bitartez emango da ukoaren berri.
8. Kontsultaren arau bereziek zehaztuko dituzte kontsulta-mahaiak osatu ahal izateko neurriak, titularren eta ordezkarien artean postu guztiak ezin bete direnean.
9. Kontsulta-prozesuan parte gisa onarturiko erakundeek ordezkariak eduki ahal izango dituzte kontsulta-mahaietan, presente egon ahal izango dira eraketa, bozketa eta zenbaketa jardunetan, eta alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, hala behar badu.

19. Artikulua. Kontsulta-mahaien funtzioak

1. Hona hemen kontsulta-mahaietako dagozkien funtzioak:
 - a) Parte-hartzaileei laguntzea, lege honek aitortzen dien parte-hartzeko eskubidea egoki gauzatu ahal izan dezaten.
 - b) Parte hartzera deituriko pertsonak identifikatzea.
 - c) Parte hartzera deituak diren pertsonen zerrenda zaintzea, botoa ematea baimentzea eta parte-hartzaileak erregistratzea.
 - d) Eraitzen behin-behineko zenbaketa jendaurrean egitea eta dagokion aktan haren berri ematea, gertaturiko gorabeherekin batean.

e) Kontsulta bururatu ahal izateko behar den materiala eskatzea eta zaintzea.

f) Kontrol eta jarraipenerako batzordeek eta administrazio deitzaileak gainerakoan aginduko dizkietenak.

2. Kontsulta-mahaiko lehendakaria da agintari gorena bere jardueraren esparruaren barruan.

20. Artikulua. Kanpaina eta eztabaida publikoa

1. Kontsultaren helburuaren gaineko informazioa hornitzea eta haren aurreko jarreraren arteko kontrastea agertzea, eta parte hartzeko gai direnen pertsonen sostengua eskatzea, dira kanpainaren eta eztabaida publikoaren helburuak.

2. Deialdirako dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoko egunean hasiko da kanpaina.

3. Kontsulta bururatuko den eguneko zero ordutik aurrera ezin egingo da kontsultaren helburuaren gaineko kanpaina edo promozio-ekitaldirik, ez eztabaida publikorik.

21. Artikulua. Kanpainarako espazio publikoak eta informazio-guneak hedabideetan.

1. Kontsultaren sustatzaileek, prozesuan onarturiko erakundeek eta Legebiltzarrean, batzar nagusietan –foru-esparruko kontsulten kasuan, eta tokiko erakundeetan –toki-esparruko kontsulten kasuan– ordezkariak dituzten talde politikoek dohaineko espazio publikoak erabiltzeko eskubidea izango dute, kanpaina egiteko eta eztabaida publikoetan parte hartzeko. Udalek espazio publikoak erreserbatuko dituzte kanpainako aktoreek kontsultaren gaineko informazioa paratu ahal izan dezaten, eta lokalak eta espazioak ere hornituko dituzte, dohainik betiere, kanpainako ekintzak eta eztabaidak bururatu eta informazio hori jendaurrera eraman ahal izateko.

2. Deialdiaren arau berezietan zehaztuko dira titularitate publikoko hedabideetan dohaineko espazioak zer baldintzen arabera eman eta banatuko diren. Herri-kontsulta udal-esparrukoa bada, guztiz edo zati batean eraginiko toki-esparruan dauden titularitate publikoko hedabideetara mugatuko da obligazio hori. Kasu guztietan zehaztuko da kanpaina bideratu eta gauzatu ahal izango den epea.

3. Kontsulta-eparean bitartean, inolaz ere errespetatuko dituzte titularitate publikoko hedabideek aniztasun politikoa eta soziala, neutraltasuna eta kontsultaren aurrean defendatuko diren jarreraren aukera-berdintasuna bermatzen dituzten printzipioak. Hedabide horien administrazio-organoen erabakien aurkako errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira Kontrol Batzordearen aurrean.

22. Artikulua. Bozketa moldeak

1. Ohiko bozketa presentzialaren edo aldez aurreko bozketaren bitartez parte hartu ahal izango da kontsultetan.
2. 1. atalean aipaturiko bozketa moldeez gainera, bitarteko elektronikoen bitartez ere parte hartu ahal izango da kontsultetan, 28. artikulua xedatu bezala.

23. Artikulua. Ohiko bozketa presentziala

1. Kontsulta-mahaien aurrean, deialdirako dekretuan adierazitako egunean eta ordu-epetan, gauzatuko da ohiko bozketa presentziala.
2. Toki-esparruko kontsulten kasuan, egun bat baino gehiago hartu ahal izango da aintzat ohiko bozketa presentziala gauzatzeko.
3. Boto-papera barruan duen bozketako gutun-azala boto-ontzian sarturik bururatuko da ohiko bozketa presentziala.

24. Artikulua. Aldez aurreko bozketa

1. Kontsultetan, botoa deialdirako dekretuak zehazturiko epean postaz bidaliz edo deposituan utziz gauzatuko da aldez aurreko bozketa.
2. Aldez aurreko bozketa postaz bururatu ahal izateko, botoa gutun-azal itxian bidaliko zaio, posta zerbitzuaren bitartez, deialdirako dekretuak zehazturiko organoari.
3. Depositu bidezko bozketa bururatzeko, zuzenean emango zaie botoa, gutun-azalean behar bezala itxirik, horretarako izendatu diren zerbitzari publikoei.
4. Bozketa presentzialerako bide guztiak eragotziko ditu aldez aurreko bozketa baliatzeko eskariak. Xede horri begira, beharreko neurriak hartuko dira kontsulta-mahai bakoitzeko parte-hartzaileen zerrendan zehazpen hori egin dadin.

25. Artikulua. Bozketa molde desberdinetan aplikatu beharreko arauak

1. Herri-kontsulta guztietan bideratuko da ohiko bozketa presentziala.
2. Kontsultaren izaerak edo helburuak gisa horretan jotatzea justifikatzen badu edo deialdirako dekretuak hala zehaztu badu baizik ez dira bideratuko aldez aurreko bozketa moldeak.
3. Bozketa molde desberdinetan bideratu eta aintzat hartu beharreko prozedura, baldintzak eta betekizunak zehaztuko dira kontsultaren antolamendurako arau berezietan.
4. Bozketa molde guztiek bermatuko dute:
 - a) Parte-hartzaileen identifikazioa, beharreko zerrendan izena emanak direla egiaztatuz.

- b) Boto isilerako eskubidea.
 - c) Pertsonak boto emateko behar duen autonomiaren errespetua.
 - d) Parte hartu duten pertsonen gaineko lekukotasuna.
 - e) Botoen gutun-azalen osotasuna, zenbaketaren unera arteraino egokiro babestuko dituen sistemaren bitartez.
5. Kontrol Batzordeak zehaztuko ditu postaz bidali edo deposituan utzi diren gutun-azalak eta dokumentazioa babesteko irizpideak.

26. Artikulua. Botoen zenbaketa

1. Kontsulta-mahaiek egingo dute emaniko botoen zenbaketa eta zehaztuko dute, halaber, boto horiek kontsultaren helburutzat harturiko galdera edo proposamenen arabera lortu duten emaitza.
2. Kontrol Batzordeak egingo du postaz bidaliriko edo deposituan utziriko botoen zenbaketa.
3. Jendaurreko ekitaldian gauzatuko da zenbaketa. Hala egiteko eskatuz gero, kontsulta-prozesuan onarturiko erakundeen ordezkariak eman beharko zaizkie zenbaketaren emaitzak.
4. Nuluak izango dira deialdian zehazturiko ereduaren arabekoak ez diren, edo azalduko iritzia oker hartzeko eta baldintzatzeko aukera eskaini lezakeen zeinahi aldaketa pairatu duten, boto-paperak.

27. Artikulua. Bitarteko elektronikoen erabilera

1. Bitarteko elektronikoz ere parte hartu ahal izango da herri-kontsultetan, baldin eta honako hauek bermatzen badira:
 - a) Parte-hartzailearen identifikazio segurua.
 - b) Pertsona bakar baten parte-hartzea bikoitzeko edo anizteko aukerarik ez izatea.
 - c) Boto isilerako eskubidea, agerturiko iritziaren eta iritzi hori eman duen pertsonaren artean inolako loturarik zehazteko modurik ez dela egongo ziurtatuz.
 - d) Boto elektronikoen segurtasuna, parte-hartzearen edo emaniko botoen aldaketa guztiz eragozteko.
 - e) Gardentasun aski, interesaturiko aktoreek behaketa eta gainbegirada independentea eta behar bezala oinarritua bideratu ahal izan dezaten.
2. Presentziala edo telematikoa izan daiteke boto elektronikoa.
3. Bitarteko elektronikoa, kontsultetan parte hartzeko ez ezik sinadurak biltzeko ere erabili ahal izango dira, herritarren ekimenen kasuan, baldin eta sinatzaileen identifikazioan segurtasuna bermatzen bada.

4. Artikulu honetan xedaturikoari jarraiki, araudi bidez arautu behar du Eusko Jaurlaritzak parte-hartze elektronikorako sistema. Araudi honetan plataforma teknologiko komun baten ezarpena hartuko da aintzat, tokiko esparruetan haren hedatze homogeneoa bidera dadin.

28. Artikulua. Arloko kontsulten funtsezko arauak

Arloko kontsulten deialdirako dekretuak honako hauek zehaztuko ditu kasu guztietan:

- a) Kontsultan parte har dezaketen kolektiboa edo kolektiboak, desberdintasun eta ez-diskriminazio printzipioa errespetatuz betiere.
- b) Bozketa moldeak.
- c) Kanpaina eta eztabaida publikorako irizpide espezifikoak. Halaz ere, 22.2 artikuluan xedaturikoa ez da kasu honetan ezinbestez aplikatu behar izango.

III. KAPITULUA. HERRI-KONTSULTEN ARAU BEREZIAK, HERRITARREN EKIMENEZ SUSTATUAK DIRENEAN

29. Artikulua. Herritarren ekimenaren bidez eginiko deialdiaren sustapena

Lege honek zehazturiko baldintzen arabera, pertsona fisikoek edo juridikoek susta dezakete Herri-kontsultarako deialdia.

30. Artikulua. Batzorde sustatzailea

1. Berezko nortasun juridikoaren jabe den irabazi asmorik gabeko entitate batek edo gehiagok, edo kontsultetan parte hartu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten gutxienez hiru pertsona fisikoak, osa dezakete ekimenaren batzorde sustatzailea.

2. Inoiz ere ez dira batzorde sustatzaileko kide izango:

- a) Eusko Legebiltzarreko diputatuak.
- b) Batzar Nagusietako batzarkideak.
- c) Tokiko erakundeetako kide hautetsiak.
- d) Gorte Nagusietako diputatuak edo senatariak.
- e) Europako Parlamentuko diputatuak.
- f) Indarrean dagoen legeriak Euskadiko instituzioetako hautetsi eta goi karguei zehazturiko hautaezintasun eta bateraezintasun egoeretako batean dauden pertsonak.
- g) Eusko Jaurlaritzako kideak eta foru aldunak.

31. Artikulua. Ekimena.

1. Ekimenerako eskaera Lehendakariari, Aldun Nagusiari edo tokiko erakundeko lehendakariari zuzenduko zaio, esparruen arabera.

2. Honako dokumentu hauek aurkeztuko dira ekimenerako eskaerarekin batean:

a) Kotsultarako proposaturiko testua.

b) Kotsultan parte hartzera deituko diren pertsonen zerrenda. Kotsultaren lurraldeko edo arloko esparruaren barruko herritarrak izango dira, 5. artikuluan xedatu bezala.

c) Sinadurak biltzeko orriaren eredurako proposamena. Hartan ageriko dira kotsultara eramango den testu osoa eta pertsona sinatzaileak bere izena, deiturak, bizi den udalerria eta nortasun agiri nazionalako zenbakia edo atzeritarren identifikazio zenbakia zehaztuko dituen gunea.

d) Herri-kotsulta sustatzeko ekimena, sustatzaileen iritziz, aholkatzen duten arrazoiak azaltzen dituen memoria.

e) Batzorde sustatzailea osatzen duten kideen zerrenda eta haien datu pertsonalak.

f) Ekimena pertsona juridikoei sustatua bada, aurkeztea erabaki duen organo eskudunaren erabakiaren egiaztagiria.

g) Ekimenerako eskaera aurkezteko epea 150 egun naturalekoa da kotsulta fakultatiboen kasuan, legea, araua edo ordenantza dagokion aldizkari ofizialean argitaratu denetik aurrera.

3. Organo eskudunak hiru hilabeteko epearen barruan jakinaraziko dio ekimena sinatu duen batzorde sustatzaileari tramiterako onartu izanaren eta sinadurak jaso diren orria balioztatu izanaren berri, edo tramiterako onartu ez izanaren berri. Azken kasu horretan, behar bezala arrazoiak beharko da ebazpena eta haren aurreko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Kontrol Batzordearen aurrean.

4. Ekimenerako eskaera ez onartzeko arrazoiak izango dira:

a) Kotsultaren helburua lege honetan finkaturikoaren arabera ez izatea.

b) Ekimenaren sustatzaileek aurkezturiko dokumentazioan 2. atalean zehazturiko betekizunetakoren bat ez betetzea.

c) Herri-kotsultarako ekimena 39.1 artikulua aipaturiko epeetan aurkezturiko beste ekimen baten eduki bertsukoa edo funtsean baliokidea izatea.

d) 39.2 artikulua aipaturiko epeetan aurkeztua izatea.

e) Parte hartzera deiturikoak kotsultaren lurraldeko eta arloko esparruko herritarrak ez izatea.

32. Artikulua. Ekimenaren esparrua

Aintzat hartuko dituen organo eskudun bakoitzaren arabera, EAEko esparrukoak, lurralde historiko bateko esparrukoak edo tokiko esparrukoak izan daitezke herritarren ekimenak.

33. Artikulua. Ekimenaren sinatzaileak

Parte hartzera deituriko pertsonak izan daitezke ekimenaren sinatzaileak.

34. Sostengurako sinadurak

1. Parte hartzera deituriko 30.000 pertsonaren sinadura balioztatuak behar dira EAEko esparruan Herri-konsulta bat eskatzeko.

2. Parte hartzera deituriko pertsonen % 2ren sinadura balioztatuak behar dira lurralde historiko bateko esparruan Herri-konsulta bat eskatzeko.

2. Tokiko esparruan Herri-konsulta bat eskatzeko, tokiko erakundearen beraren araudian zehazturiko sinadura balioztatu kopurua behar da. Kopuru hori inoiz ez da lege honek finkaturikoa baino goragokoa izango eta, zehazpen espezifikorik egin ezean, honako balio hauek hartuko dira kontuan kasu horietan:

a) 1.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 15.

b) 1.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 10, eta 150 sinadura gutxienez.

b) 20.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 5, eta 2.000 sinadura gutxienez.

b) 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 2, eta 5.000 sinadura gutxienez.

3. Ekimena udalerritik gorako –eskualdeen kasuan– edo beherako –udal entitate deszentralizatuen, auzo edo barrutien kasuan– lurralde-esparru bati badagokio, 2. atalean finkaturiko ehunekoak baizik ez dira aplikatu behar, eta eraginiko eremuko biztanle kopuru zehatza hartuko da oinarritzat kalkulu horri begira.

35. Artikulua. Sinaduren bilketa

1. Organo deitzaileak onarturiko ereduaren arabera orrietan bururatuko da sinaduren bilketa.

2. Sinadurak bilduko diren inprimaki bakoitzean, argi eta ulertzeko moduan azalduko dira bilketaren helburuaren gaineko informazioa emango duen klausula eta izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiak betearazten dituen gainerako baldintzak.

3. Sinadurak bilduko diren inprimaketan jasoriko datuak isilpekoak dira, jasoak diren kontsultaren eskaeraren sostengu gisa baizik ez dira erabili ahal izango eta errekurtsorako epea igaro ondoren edo, hala bada, errekurtsuak guztiz ebatzi

ondoren, suntsitu beharko dira. Pertsona sinatzaileek horretarako baimena espresuki ematen badute baizik ez dira argitaratu ahal izango.

4. Araudian zehaztuko den moduan benetakotzat hartu eta egiaztatuko dira sinadurak. Nolanahi ere, fede-emaile bereziak izendatu ahal izango ditu batzorde sustatzaileak sinadurak benetakotzat har eta egiazta ditzaten. Fede-emaile horiek hamasei urtetik gorakoak izango dira eta Kontrol Batzordearen aurrean zin edo hitz emango dute ekimenaren alde aurkezten diren sinadura horiek benetakoak direla. Batzorde sustatzaileko kideak dira sinaduren benetakotasunaren eta isilpekotasunaren eta jasoriko datuen erabilera egokiaren erantzule.

5. Laurogeita hamar egunekoa da sinadurak biltzeko epea, herri-kontsultak tokiko esparruko bozketen bitartez gauzatu behar direnean izan ezik, hirurogei egunekoa izango baita horietan epea. Tramiterako onarpena jakinarazi den egunetik aurrera hasiko dira epeak.

36. Artikulua. Sinaduren zenbaketa eta balioespena

1. Sinaduren gutxieneko kopurua bildu ondoren, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari edo dagokion tokiko erakundeari emango zaizkie orriak, izen-emateak dagozkion erregistroan egiaztatuak izan daitezten.

2. Izen-emateak tokian tokiko erregistroen arduradunek emaniko ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, azkeneko eguneratzeko datuen arabera eta sinadura-orriak aurkeztu diren egunaren ondoko bi hilabeteko epean.

37. Artikulua. Deialdirako eskaeraren onespena edo ezespena

1. Balioztaturiko sinadurek finkaturiko gutxieneko kopurua iristen badute, 10.4 artikuluan xedaturiko epean deituko du organo eskudunak eskaturiko kontsultara, sinadurak balioztatzen dituen ebazpenaren berri eduki den egunetik aurrera.

2. Balioztaturiko sinaduren kopurua legez eskatu dena baino urriagoa denean baizik ez da ukatu ahal izango eskaturiko kontsulta-deialdia, batzorde sustatzaileari jakinaraziko zaion ebazpen behar bezala arrazoituaren bidez.

3. Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiari edo kasu bakoitzean kontsultarako deialdia legez egiteko gaitu den tokiko erakundeari dagokio sinaduren balioztatzeari edo eskaturiko kontsultarako baimenari emaniko ukoari buruz erabakitzea.

38. Artikulua. Herri-kontsultak sustatu edo bururatu ezin diren epeak, herritarrek sustaturiko ekimenak direnean

1. Herri-kontsulta bat sustatzeko tramiteak abiarazi direlarik, bi urte igaro arte ezin dira eduki bertuko edo funtsean baliokide diren kontsultak sustatu. Noiztik bi urte:

a) Kontsulta bururatu denetik.

b) Sinaduren balioztatze eta zenbaketa-prozesua amaitu denetik, deialdirako eskaera ukatu den kasuetan.

c) Sinadurak biltzeko epea bukatu denetik edo eskaera baliorik gabe utzi den momentutik.

2. Toki eta foru esparruetako herritarren ekimenen kasuan, udal eta foru hauteskundeak baino sei hilabete lehenago eta hauteskundeen eta tokiko erakundearen edo Batzar Nagusien osaketaren arteko epean ezin sustatuko dira herri-kontsultak.

3. EAEko esparruko herritarren ekimenen kasuan, ezin sustatuko dira herri-kontsultak Eusko Legebiltzarraren legegintzaldia amaitu eta hauteskundeak deitu diren unetik Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren kargua hartu ondoren ehun egun igaro diren arte.

4. Herri-kontsultak erakunde deitzailea disolbatu unean tramitean badaude, bertan behera geratuko dira ondoko tramite guztiak, Lehendakaria nahiz Aldun Nagusia inbestitu edo tokiko erakundea eratu arte.

IV. TITULUA. HERRITARREN

PARTE-HARTZE PROZESUAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

39. Artikulua. Definizioa.

1. Herritarrek politika publikoen orientabidean eta definizioan bideratu beharreko esku hartzea erraztea eta sustatzea helburua duten jarduera instituzionalizatuak dira herritarren parte-hartze prozesuak.
2. Herritarren parte-hartze prozesuen xedea da, halaber, herritarren eta instituzio publikoen arteko gogoeta eta eztabaida bermatzea, herritarrek jarduera politiko zehatz baten aurrean duten iritzia jaso ahal izateko, zeinahi ere den jarduera politiko hori dagoen fasea (proposamena, erabakia, aplikazioa edo ebaluazioa).
3. Parte-hartze prozesuak titulu honetan aintzat harturiko moldetakoak edo antzekoak, egungoak edo etorkizunean sor litezkeenak, izan daitezke, eta 2. artikuluan finkaturiko printzipioak errespetatu behar dituzte beti.

40. Artikulua. Esparru subjektiboa

1. Hamasei urtetik gorako pertsonak esku har dezakete herritarren parte-hartze prozesuetan. Halarik ere, prozesuaren izaerak edo helburuak hala eskatuz gero, murriztu egin liteke parte-hartzaileen gutxieneko adina.
2. Herritarren parte-hartze prozesuak herritar guztiei irekiak izan ohi dira; alabaina, haien helburua edo lurralde-esparrua direla medio, pertsona kolektibo jakin batera edo batzuetara ere zuzen daitezke.
3. Kolektibo espezifikoetara zuzenduriko prozesuetarako deialdiek zehatz-mehatz definitu edo mugatu behar dituzte parte hartzera deituko diren kolektiboak.
4. Kolektibo espezifikoetara zuzenduriko prozesuetarako deialdien kasuan, bereziki zaindu behar da berdintasun eta ez-diskriminaziorako printzipioen aplikazioa, hala prozesuaren helburuaren arabera deitu beharreko kolektiboak hautatzerakoan nola kolektibo horien barruan.
5. Herritarren parte-hartze prozesuetan esku har dezakete, oro har, entitate, erakunde eta pertsona juridikoei ere; ez ordea pertsona fisikoei erreserbatuetaoetan, azken horien izaera dela medio.

41. Artikulua. Esparru objektiboa

1. Izaera orokorrez, edozein proposamen, jarduera edo erabakiren aurrean deitu ahal izango dira herritarren parte-hartze prozesuak, baldin eta haien aplikazioaren gaineko informazioa eta eztabaida eta herritarrek haien buruz duten iritzia ezagutzea garrantzitsua bada. Herritarren eta instituzio publikoen arteko interakzioa sustatuko da horrenbestez.

2. 1. atalean finkaturikoaz gainera, herritarren parte-hartze prozesuen helburua izan daiteke, halaber, politika publikoak ebaluatzea eta, hala behar badu, ebaluatoriko politiketako jarduera publikoa aldatzeko neurriak proposatzea.

II. KAPITULUA.

HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUEN EKIMENA ETA EDUKIA

42. Artikulua. Instituzioen ekimena

1. Instituzioen ekimenaren fruitua dira herritarren parte-hartze prozesuak Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta tokiko erakundeen Administrazioek, zeinek bere eskumen-esparruan, sustatzen dituztenean.

2. Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta tokiko erakundeen Administrazioek gainera, herritarren parte-hartze prozesuetara deitzeko ekimenaren jabe dira orobat herritarren kolektiboekiko harremanak dituzten gainerako erakunde eta organismo publikoek, haien gainean dituzten eskumenak, betetzen dituzten funtzioak edo ematen dituzten zerbitzuak kontuan harturik.

43. Artikulua. Herritarren ekimena

1. Herritarrek berek susta ditzakete, Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta tokiko erakundeen aurrean, beren parte-hartze prozesuak, instituzio horietako bakoitzaren eskumen-esparruan.

2. EAEko esparruan, ezinbestez onartu beharrekoa izango da ekimenerako deialdia prozesuan parte har dezaketen 16 urtetik gorako gutxienez 10.000 pertsonaren sostengua jaso badu.

3. Lurralde historikoen esparruan, ezinbestez onartu beharrekoa izango da deialdia baldin parte hartzera deitu beharreko pertsonen % 1ek haren alde sinatzen badu.

4. Tokiko esparruan, ezinbestez onartu beharrekoa izango da deialdia honako baldintza hauek betetzen badira:

a) 1.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 5ek alde sinatu badute.

b) 1.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 3k alde sinatu badute, eta gutxienez 50 sinadura bildu badira.

c) 20.001 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerrietan, parte hartzera deituriko

pertsonen % 2k alde sinatzen badute, eta gutxienez 600 sinadura bildu badira.

d) 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, parte hartzera deituriko pertsonen % 1ek alde sinatzen badu, eta gutxienez 2.000 sinadura bildu badira.

4. Udalerritik gorako eta beherako esparruetan, 3. atalean finkaturiko ehunekoak baizik ez dira aplikatuko, gogoan edukirik eremu bakoitzean aintzat harturiko biztanleria.

5. Apalagoak izan daitezke artikulua honetan finkaturiko ehunekoak, tokiko erakundearen araudian hala zehaztuz gero.

44. Artikulua. Herritarren ekimenen gaineko arau bereziak

1. Biztanleriari oro har zuzenduriko parte-hartze prozesuetan bidera daiteke herritarren ekimena, honako mota hauetan: galdeketa, audientzia publikoa, parte-hartze foroak, eta abar. Kolektibo espezifikoetarako zuzenduriko prozesuen kasuan, herritarren ekimena ere ezagutu eta onartu ahal izango dute botere publikoek, zehaztuko dituzten terminoen arabera. Kasu horretan, prozesua zuzenduko den esparru subjektiboa erreferentziatuz hartuz kalkulatu dira ehunekoak.

2. Oinarrizko zerbitzu publikoen kudeaketaz arduraturiko erakunde edo entitate publikoen, unibertitateen eta elkarte-oinarria duten zuzenbide publikoko korporazioen barne arauetan aurreikusi eta arautu egin behar da erabiltzaileen edo kideen ekimenerako eskubidea, esku-hartze prozesuak sustatzeko.

3. 1. atalean aipatu diren parte-hartze moldeez gainera, 40.3 artikulua arabera sor litezkeen gainerako parte-hartze moldeetan ere hartu ahal izango da aintzat herritarren ekimena, araudian hala zehaztu bada.

45. Artikulua. Herritarren parte-hartze prozesuen egitura

1. Herritarren parte-hartze prozesuetan, gutxienez honako fase hauek hartuko dira aintzat:

a) Parte har dezaketen pertsonenganako informazio-epea.

b) Proposamenen ekarpena.

c) Proposamenen eztabaida eta balioestea.

d) Prozesuaren ebaluazioa eta kontuak ematea.

2. 1. atalean finkaturiko faseez gainera, herritarren parte-hartze prozesuek gogoeta eta eztabaida fase bat ere hartu behar dute kontuan, unean uneko prozesuaren izaerak horretarako aukera ematen badu. Eztabaida fase horretan, pertsonen eta entitateen, administrazio deitzailearen arduradunen eta haren zerbitzupeko adituen eta independenteen parte hartzea ziurtatuko da.

46. Artikulua.- Informazioa.

1. Beharreko informazio guztia emango da herritarren parte-hartze prozesurako deialdian, honako hauek zehaztuz:

- a) Parte hartzera gonbidatu diren kolektiboak.
- b) Prozesuaren helburuak. Argi eta garbi zehaztuko da haietan herritarren iritziazen pean ezarri den jarduera publikoa zein den.
- c) Instituzio deitzaileak planteaturiko aukerak edo alternatibak, horrelakorik bada.
- d) Iritzia gorpuztu ahal izateko behar diren dokumentazioa eta informazioa.

2. 1. atalean aipatu diren deialdia eta informazioa jendurrean ezagutarazi behar dira argi eta erraz ulertzeko moduan, eta zabaldu eta ezagutaraziko dira orobat unean uneko web instituzionalaren bitartez.

47. Artikulua. Proposamenen ekarpena

1. Herritarren parte-hartze prozesuetarako deialdian epe bat finkatuko da parte hartu ahal izango duten pertsonen beren ekarpenak eta proposamenak egin ahal izan ditzaten.

2. 1. atalean aipaturiko epea inoiz ez da hogeita hamar egun baino gutxiagokoa izango.

3. Ekarpenak eta proposamenak legezko zeinahi bidez aurkeztu ahal izango dira, bai eta bitarteko elektronikoak erabiliz ere. Betekizun bakarra da pertsona ekarlearen identifikaziorako datuak ematea, eta betiere egiaztatu ahal izango du administrazioak ekarpena egiteko erabili den kontua.

48. Artikulua. Proposamenen balioestea

1. Eginiko ekarpen eta proposamen guztiak aintzat hartu eta balioetsiko ditu herritarren parte-hartze prozesua deitu duen administrazioak.

2. Balioeste fasean zehaztuko da zein ekarpen eta proposamen aintzat hartu eta administrazioaren jardueran nola zehaztu.

3. Balioeste fasetik kanpora utzi ahal izango dira herritarren parte-hartze prozesuaren helburuarekin zuzeneko loturarik ez duten ekarpenak.

49. Artikulua. Herritarren parte-hartze prozesuen ebaluazioa

1. Amaierako memoria batean islatu beharko dira herritarren parte-hartze prozesu bakoitzaren emaitzen ebaluazioa. Bi hilabeteko epean landuko da memoria, ebaluazioa amaitu denetik aurrera, eta honako eduki hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Prozesuaren eta faseen deskribapena.
- b) Izaniko parte-hartzearen eta jasoriko ekarpenen gaineko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.
- c) Herritarren parte-hartze prozesuan eta haren ebaluazio fasean bideraturiko metodologia. d) Prozesuaren eta haren emaitzen balorazio globala.

2. Ebaluazioaren amaierako memoria administrazio deitzailearen web instituzionalean argitaratuko da eta haren berri emango zaie halaber parte-hartzaileei.

3. Herritarren parte-hartze prozesuaren gaineko kontuak emango ditu administrazio deitzaileak. Kontuen emateak honako betekizun hauek eskatzen ditu inolaz ere:

- a) Ekarpenak eta proposamenak aintzat hartzeko erabili diren irizpideak eta onartuak edo baztertuak izateko argudiatu diren arrazoiak ezagutaraztea.
- b) Herritarren parte-hartze prozesuaren ondorioz harturiko konpromisoak bete direla egiaztatzea.

50. Artikulua. Herritarren parte-hartze prozesuen ondorioak

Herritarren parte-hartze prozesuak ez dira lotesleak administrazio deitzailearekiko. Hala eta guztiz ere, 50. artikulua aipagai duen amaierako memorian sarrera egingo zaio atal berezi bati, parte-hartze prozesuak administrazio deitzailearen jardueran eduki dituen ondorioez eta administrazio deitzaileak onarturiko prozesuarekin loturiko konpromisoez jarduteko.

51. Artikulua. Sostengurako neurriak

- 1. Beren funtzioa betetzeko behar dituzten bitarteko pertsonal eta materialez hornitu behar dira herritarren parte-hartze prozesuak.
- 2. Pertsonak, herritarren erakundeen ordezkariak eta adituak batera aintzat hartzen dituzten parte-hartze molde guztiek beharreko bitartekoak eta laguntza eta asistentzia tresnak, telematikoak barne, eduki behar dituzte, eta baldintza berdinetan erabili behar dituzte orobat parte-hartzaileek bitarteko horiek.

III. KAPITULUA. PARTE-HARTZE MOTAK

52. Artikulua. Galdeketak.

1. Lege honen ondorioei begira, herritarren parte-hartze prozesua da galdeketa, herritarrek gai jakin bati edo batzuei buruz duten iritzia edo haien inguruan dituzten lehentasunak ezagutzeko teknika demoskopikoak erabiltzen dituen. Kontsultara eramaniko gaiaren izaerara eta ezaugarrietara hoberen egokitzen diren prozedurak bideratuko dira hartan.
2. Kontsultatu beharreko unibertsoa ongi ordeztu duen askotariko lagin batetik abiatu egituratuko dira galdeketak, helburu bakoitzaren arabera betiere. Galdeketek erreferentziatzen har dezakete herritar guztien multzoa, edo kolektibo jakin bat edo batzuk baizik ez, herritarren iritzia jasorik lortu nahi den helburuaren edo egin beharreko galderaren izaeraren arabera.
3. Herritarren panelen bitartez ere bidera daitezke galdeketak. Legearen ondorioei begira, herritarren panela da gizartea, edo haren sektore jakin batzuk, ongi ordeztu duen herritar eta herri-entitateen ordezkari multzoa. Hari egiten zaizkio interes publikoko gai baten gaineko kontsultak eta eskatzen zaizkio iritziak.
4. Araudi bidez finkatzen dituzte administrazio deitzaileek herritarren panelak hautatzeko eta egituratzeko prozedura eta dagokien funtzionamendua.

53. Artikulua. Herritarren audientzia publikoak

1. Lege honen ondorioei begira, audientzia publikoa da jarduera publiko jakin baten aurrean pertsonen, entitateen eta erakundeen proposamenak aurkezteko eta eztabaidatzeko aukera eskaintzen zaien parte-hartze prozesu herritarra.
2. Audientzia publikoak orokorrak izan daitezke edo kolektibo berezietara zuzen daitezke. Parte-hartze prozesura eramaniko gaiak zuzenean herritarren kolektibo bati, edo arlo jakin bati, eragiten dionean bideratzen dira bigarren molde honetakoak.

54. Artikulua. Parte-hartze foroak

1. Ekimen eta politika publikoen gaineko hausnarketa, azterketa, proposamen eta ebaluazio gune gisa antolatzen dira parte-hartze foroak. Aldi jakin batekoak edo iraunkorrak izan daitezke parte-hartze foroak.
2. Administrazioak, ekimen edo politika publiko batek zuzenean eraginiko arlo edo kolektibo bat ongi ordeztu duen lagin gisa, hautatu dituen herritar eta herri-entitateen ordezkari multzoek osatzen dituzte foroak. Aditu independenteak ere hautatzen dira foroetako kide izateko, landu beharreko gai bakoitzaren arabera.

3. Honako helburu hauek eduki ditzakete foroek:

- a) Praktikara eraman nahi den ekimen publiko baten egokitasunari buruz eztabaidatzea, eraginiko arloan eduki litzakeen ondorioak aurreikusiz.
- b) Politika publikoen jarraipena egitea eta haien hobekuntzarako neurriak proposatzea, zerbitzuak eskaintzen dituzten arloei dagokien guztian bereziki.
- c) Politika publikoen emaitzak aztertzea eta ebaluatzea.

4. Artikulu honetan aintzat hartu denaren eraginkortasunari begira, parte-hartze erregistro bana sortu eta arautu behar dute Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta tokiko erakundeek, hala nahi duten pertsonak, entitateak eta erakundeak haietan izena eman ahal izan dezaten, foroetako kide izanik haietan modu eraginkorrean parte hartu ahal izateko.

5. Parte-hartze erregistroan izena emaniko pertsonen eta entitateen artean hautaturiko kideen bitartez zehaztuko da antolatuko den foro bakoitzaren osaketa, parte-hartze prozesuaren izaera bereziak osaketa izendapenen bidez gauzatzea hobetsiko den kasuetan izan ezik. Azken kasu honetan, ahalik eta modu irekienean egin behar da hautaketa, aniztasuna errespetatuz eta 2. artikuluan finkatu diren gainerako printzipioen arabera.

55. Artikulua. Kontseilu Aholkulariak

1. Toki, lurralde edo autonomia-esparruko organoak dira, Euskadiko arlo-lege batzuetan garatuak. Aholku eta eztabaida izaerakoak dira, lege honetan aintzat harturiko plan eta ekintzen formulazio, tramitazio eta onarpenerako prozeduretan gizarte-itunetarako eta herritarren parte-hartzerako funtzioak betetzen lagunduko dutenak.

2. Legearen arabera, instituzio publikoak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta tokiko erakundeak, dira kontseilu horiek deitzeko obligazioa duten erakunde sustatzaileak eta subjektu juridikoak.

56. Artikulua. Aurrekontu parte-hartzaileak

1. Aurrekontu parte-hartzailea da herritarrek, haietako bakoitzaren borondatez edo gizarte-erakundeen bitartez, tokiko, lurraldeko edo Euskal Autonomia Elkarteko aurrekontuen gaineko erabaki-hartze prozesuan parte hartzeko aukera duten bitartekoa, horretarako izendatu diren agintari hautetsiekiko bileretan gauzatzen dena.

2. Aurrekontua parte-hartzaileak irekiak dira haien esku hartu nahi duten gizarte-erakundeetara eta, oro har, herritar guziengana; baliabide publikoen erabilerari buruzko eztabaida publikorako aukera eskaintzen dute; erabakimenaz hornitzen dituzte erakundeak eta herritarrak inbertsio publikoen orientabidea zehazterakoan.

3. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta tokiko erakundeek beharreko araudia onartuko dute lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoko urtebeteko epean, beren esparruetan aurrekontu parte-hartzaileen inplementazioa garatzeko.

4. Legeak hala agindurik, instituzio bakoitzak duen aurrekontuaren gutxienez %5 kudeatu beharko da aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan, eta horretara obligatuak dira, ezinbestez, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta tokiko erakundeak.

57. Artikulua.- Auzolana

Auzolana herritarrek beren izenean eta familia, etxe edo suaren ordezkari moduan herri-ondare publikoari egiten dioten doaneko lan-ekarpena da, horretara dagokion agintariak deiturik.

Gaur egungo gizartearen ondare publikoak, batzuk ez-materialak eta besteak materialak gero eta garrantzi handiagoa dute etorkizunerako. Eta lege honen bidez xedea dugu, herritarrak ondare publikoaren defentsako protagonismoa beren esku izatea. Besteak beste, kultura eta ingurumena. -

58. Artikulua. Parte-hartze prozesu bereziak

1. Legeek arlo eta gai jakin batzuei begira zehazturiko parte-hartze tresnei eta bitartekoei bidea oztopatzen ez diela ulertu beharrak dira titulu honetan arautzen diren eta haren babespean sortuko diren parte-hartze prozesuak.

2. Ordezko izaeraz aplikatuko zaie titulu honetan zehazturikoa beste lege batzuek parte-hartzeari begira xedaturiko tresna eta bitartekoei.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Euskal Autonomi- Erkidegoak Estatuari Herri gisa dagokion erabaki ahalmena aitor diezaion aldarrikatuko dio, horretarako beharrezkoak diren bideetatik demokraziaren ezinbesteko betekizuna dela argudiatuz.

Bigarrena. Erabakitzeko eskubidea eskubide historikoen gaurkotzea den heinean, eskumen hori eskuratzeko eta gauzatzeko orduan, autonomi-erkidegoak eta foru erkidegoak, bakoitzeko biztanleriak hala erabakiz gero, elkar hartuta jokatzeko proposatzen da, horretarako beharrezkoak diren hitzarmenak eginda.

Hirugarrena. Lege honetan xedaturiko tramiteen araberako eskaerak

Kontsulta bakoitzaren arau berezietan adierazitako erregistro-bulegoetan aurkeztuko dituzte herritarrek lege honetan xedaturiko tramiteei begira egin beharreko eskaerak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Parte-hartze Erregistroari aldez aurretik egin beharreko jakinarazpena, herri-kontsultetan

Lege honen araudiaren garapenean Parte-hartze Erregistroaren taxua eta egitura aldatzen ez diren bitartean, atzerrian bizi diren EAEko herritarrek eta 5.1 artikulua b eta c letrek aipagai dituzten pertsonak alde aurretik jakinaraziko diote herri-kontsultetarako Parte-hartze Erregistroko arduradunari herri-kontsulta bakoitzean parte hartu nahi dutela.

Bigarrena. Kontrol Batzordeko kideen izendapena eta Batzordea eratu bitartean aplikatuko den behin-behineko erregimena

Lege hau indarrean hasi ondoko hilabeteko epean izendatuko dira Kontrol Batzordeko kideak. Kideak izendatu ondoko hamabost eguneko epearen barruan eratu da Kontrol Batzordea.

Hirugarrena. Epeen neurketa

Lege honetan egunetan adierazi diren epeak egun naturalen bitartez neurtuko dira, aurkakoa zehazten ez bada. Hilabetetan adierazitako epeak egunetik egunera neurtuko dira; kasu horretan, epea jai-egunetan amaitzen bada, ondoko aurreneko laneguna hartuko da epearen amaiera-eguntzat.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Araudiaren garapena

1. Baimena ematen zaio Jaurlearitzari lege honen araudia garatzeko. Garapen honetan, inolaz ere errespetatuko da, legeak agindu bezala, araudia garatzeko eskumena Foru Aldundien eta tokiko erakundeen esku uzteko aukera.

2. 1. atalean eginiko zehazpenak inolaz ere ez die herri-kontsultak eta herritarren gainerako parte-hartze prozesuak antolatzeko eta bururatzeko arau bereziei bidea eragotziko, jakinik unean uneko organo deitzaileari dagokiola arau horiek lege honek xedatu bezala zehaztea.

Bigarrena. Indarraldiaren hasiera

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den egunean hasiko da lege honen indarraldia.

Beraz, Lege hau aplikatu beharreko herritar guztiei betetzen eta dagokien auzitegiei eta agintariei betearazten lagun dezatela agintzen diet.